

Erasmusa Vilnius-en (Lituania)

Lituania oso herrialde txikia da, eta ni bilbokoa izanik, Vilniusek nire hiriaren tamaina antzekoa izatea positiboa da niretzat.

Lituaniarrek ez dute batere gure antza, hasieratik ikusten da oso alaiak ez direla, baina horrek ez du esan nahi nirekin txarto portatu direnik, kontrakoa, beti ni laguntzeko prest egon dira.

Bertan 150 Erasmus espainiar egon dira, eta beste hainbat frantsez eta italiar. Horrez gain, beste herrialde txikitako jende pilo bat ezagutzeko aukera ezinobea da Erasmusean joatea eta Vilnius aukera hau aprobetxatzeko leku aproposa da.

Nire ikasketak VGTU unibertsitatean egin ditut lauhileko honetan eta hiriko unibertsitaterik onena da ingenieritza ikasteko. Hirian 10 unibertsitate inguru daude, beraz, hainbat lagun egiteko aukera izan nuen.

Bidaiatzea ere aukera polita da, aireportu txikia dago hirian baina Europako herrialde askorekin dago konektatuta, nire kasuan, COVID-19aren erruz, ezin izan nituen nahi bezain beste herrialde ezagutu, baina hala ere Estonia, Letonia, Finlandia eta Poloniara busez joan nintzen, eta Suedia eta Noruegiara hegazkinez. Normalean Palestina, Jordania, Bielorrusia, Ukraina eta Errusiara joateko aukera ere egoten da. Bidai guzti hauek nahiko merkeak izaten dira.

Hirian giro ona egoten da gauetan, eta asteko edozein egunetan irten zintezkeen lagunekin, gainera, Lituaniar janaria oso ona ez denez, beste herrialde askotako janaria dastatzeko hainbat jatetxe ezberdin daude.

Beñat Caira